



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERAREN GAINEKOA, 2018/07/09KOA

Ekain amaiera eta uztail hasiera zaila ari da izaten Arabako mahastizaintzarako. Ekainaren 30eko harri erauntsiak batez ere Leza eta Navaridasko eremuetan izan zuen eragina, eta kalte handiak eragin zituen 150 bat hektareatan; horren ondoren, ekaitzak izan dira zenbait egunez, eta ugaria izan da prezipitazioa, zaparradak bota baititu bata bestearen jarraian, baina ez dute ur kantitate bera utzi leku guztietan; metro koadroko 80 litroraino bota du. Zenbaitetan, euriarekin batera haize bortitza ere ibili da, eta kazkabarra bota du, eta horrek guztiak kalteak eragin ditu mahatsondoetan eta gidatze egituretan.

Lurzoruan metatutako urak, landaretza oparoak eta hil hauetan berezkoa den tenperatura epelak lainobera sortzen dute goizaldean, eta oso hezetasun handia, eta baldintza horiek oso egokiak dira onddoak garatzeko, zeinek arazoak sorraraz baititzakete hemendik aurrera.

Araba osoan, mahastien une honetako egoera fenologikoa ilar neurriko aledun mahats mordoan (K) eta mahats mordo itxiaren (L) artean dago. Arabako Errioxan, mahatsondo askok mahats mordo handiak dituzte, eta baldintza egokiak mahats aleak loditzeko: ur asetasun handia lurzoruan eta mahatsondo hostotsuak. Arabako Txakolinean, mamitzea eskasagoa izan da; hala ere, mahats lagina nahikoa da Kontseilu Arautzaileak ezarritako etekinetara iristeko.

Ahal izan den neurrian eta lurzoruaren egoerak makinak sartzea ahalbidetu duenean, tratamendua egin da, mahastiak babestuta izateko aurretiaz eta zehaztasunez iragarri diren euriteetarako.

Uztailaren 8ko (igandea) iluntzean, Arabako Errioxa osoan ekaitza bota zuen, bata bestearen ondotik, eta ur ugari, horrekin batera. Euri hori eta aurreko egunetan botatakoa medio, lurzorua ia ibilgaitz dago txosten hau idatzi dugunean. Errioxa Garaian eta Arabako Errioxan mendebalderen dagoen eremuan, prezipitazioen zati bat harria izan zen. Araban, zenbait kalte eragin zituen Gatzaga Buradonen, eta Bastidaren jurisdikzioaren barruko beste aurkintza batzuetan ere bai, baina gutxiago.

Datozen egunetan, eguraldiak aukera ematen duen heinean, tratamendua egiten jarraituko da, kanpaina osoan egin izan den bezala, finka bat bera ere kanpoan utzi gabe. Puntak mozten eta hostoak kentzen jarraituko da, produktuak errazago sar daitezten mahats mordora eta, hortaz, mahats mordoak babestuta egon daitezten onddoen erasoetatik. Zurinaren eta gorrinaren kontrako tratamenduez gain, komenigarri izan daiteke mahats mordoa itxi aurretik botritisaren kontrako esku hartzeren bat egitea, hartara, aurea hartuko baitzaio mahats mordoak koloreari eta aromari dagokionez heldu aurretik usteltzeko arriskuari; izan

ere, landareak dakarren indarraren, lurzoruaren hezetasunaren eta etekin handien ondorioz, heltze fasea azken kanpainetako baina luzeagoa izan daiteke, eta horrek areagotu egin dezake mahatsa heldu aurretik usteltzeko arriskua.

Arabako Txakolinari dagokionez, baldintzak, oro har, eta mahatsondoaren egoera Arabako Errioxari buruz azaldutakoaren antzekoak dira; nolahi ere, etekinak moderatuagoak dira, eta Araba iparraldeko eremu horretako berezko salbuespenak ere badira, baina inguruabar horiek ohikoak dira, eta mahatsaren heltzeari loturiko etekinak txikiagoak dira.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua